

## AITA JUNESI

### Trajeriari zer ekarri deion

Aita Junes Casenave Harigilek izigarriko lanak egin dütü Xiberoko eüskararen alde. Oro ezin aipa eta, pastoralari egin deion ekarpena goretsi nahi nüke bereziki. Goratarzün bat eman deio hiru püntütan: historiaren errespetüa, eüskararen adelüa, eta bertset xüxena.

1. Historia handiaren errespetü zientifikoa. Aitzinetik, izkiribanoak trajeria hontzen züan frantses libürüxka batetarik. Egia beno asmakizün eta lejenda haboro bazen horietan. Junes paper zaharren ikertzen hasi zen arraheinki. Etsenplütako “*Ibañeta pastoral*” idatzi beno lehen, Pariseko Bibliothèque Nationale delakoala joan zen, han Charlemagneren üngürüko izkiribüak begistatü zütüan, eta haien arabera, güdüka famatü hura kontatü züan, eüskaraz eta frantsesez, libürütto batetan: “*Orhiako naba, la bataille de Roncevaux*”.
2. Hein gorako eüskara. Mintzaje arrotzetarik libratü dü. Aitzineko izkiribaino eta idazleek burrustan eta behar gabe egarten zütüen biarnes, espainol eta frantses hitzak bazter ütirik, eüskal hitz galdüak arrapiztütü, bereziki amarenganik ikastez, bai eta Belapeyre eta Maister idazleenak libürü zaharretan edirenez. Gaineala, gaüza berrien erraiteko hitz berriak eüskara batutik jesan dütü, eta behar ordüan berak asmatü.
3. Bertseta xorroxki pikoan ezarri dü. Aitzinetik, bertseteko herroken lüzeagoa kanbiakor zen: batean lüze, bestean llabür, edo bien arteko, erraitekoaren arabera. Junesek izarian ezari dü, xorroxki ekarri orai üsatzen den heineala: hamasei silabako bi neurtitz (vers), erditik moztürrik (lau aldiz zortzi silaba edo hoin). Bena bi neurtitz dira, eta ez lau, nahiz lau herrokatan agertzen diren üsüenik. Eüskaraz erran dudan hau, frantsesez bermatzen düt, orok entelegatzeko gisan. *Le verset de la pastorale est un faux quatrain et un vrai distique, il a deux vers de 16 pieds coupés au milieu, d’où la majuscule au début des demi-vers 1 et 3, et la rime à la fin des demi-vers 2 et 4.*

### Zonbat trajeria ?

Junesek zonbat trajeria idatzi düan, Jinkoak daki. Bena hamar badütü püblikoan eüskaraz emanik, eta bat frantsesez Landan 1997an, *Martin Pueyrredon*. Hona eüskarazkoak:

1. *Santa Grazi*, 1976, Urdatx / Santa Grazin
2. *Ibañeta*, 1978, Garindainen
3. *Pette Basabürü*, 1982, Pagolan
4. *Zumalakarregi*, 1989, Altzain
5. *Santa Kruz*, 1992, Urdatx / Santa Grazin
6. *San Mixel Garikoitz*, 1994, Donaixtin
7. *Agota*, 1999, Lakarrin
8. *Jesüs*, 2006, Maulen, Saint François ikastetxeko ikasleek emanik
9. *Santa Engrazi*, 2006, Urdatx / Santa Grazin
10. *Eñaut d'Elizagarai*, 2007, Gamere-Zihigan

Jean-Louis Davant